
EURIA ARI DUENEAN

Testua eta irudiak: LEIRE SALABERRIA

Azal gogorrean egina. 24,5 x 21,5 cm. 36 or. 13 €.

V. ETXEPARE SARIA (2010). HAURRENTZAKO EUSKARAZKO ALBUMAK

Euria ari duenean (euskara)

ISBN 978-84-7681-689-9. Faktoría K de Libros-Pamiela.

Cuando llueve (gaztelania)

ISBN 978-84-15250-27-2. Faktoría K de Libros. Infantil.

Cando chove (galegoa)

ISBN 978-84-15250-28-9. Faktoría K de Libros. Infantil.

Pa ra glav (bretoiera)

ISBN 978-2-916835-30-3. An Alarc'h Enbannaduriü.

Euria ari duenean...

*nire zakurra pasealekuko putzu guztietan sartzen da.
Lau hankak eta muturra lokatzez beterik iristen da etxera,
poz-pozik, isatsa mugituz.
Amak lepotik hartu, eta harraskan sartzen du,
berriro zuria bihurtzen den arte...*

Album poetikoa, eguneroko errealitateari beste modu batez begiratzen diona. Normalean, hodeiak eta euria tristeziarekin eta umore txarrarekin lotzen dira, baina, hemen, baikortasunerako eta fantasiarako ate dira: kalean nahasten diren koloretako euritakoak, hezetasuna ospatzen duten barraskiloak, berriz berdatzen diren arbolak... Kontakizun labur honen narratzailearentzat festa dira egun euritsuak: aita autoz eramaten du eskolara, eta, putzuetan, plisti-plasta ibiltzen da eta alegiazko arrainak harrapatzen ditu.

Oreka egokia dago testuaren eta irudien artean.

Kontakizunaren lirismoak eta hitzak eta irudiak inguratzen dituen giro magikoak irakurleen enpatia eta bihotza pizten dituzte. Eta egun euritsuetako argi ahula izaten bada ere, egileak kolorez eta kontrastez bete nahi izan ditu liburu honetako orrialdeak. Liburuari poza dario, eta garbi dago gonbita: *eguraldia txarrean eta nekeetan, irria ezpainetan.*

Euria ari duenean liburua irabazle gertatu zen Etxepare Sariaren V. Edizioan. Sari hau Nafarroako zenbait toki entitatek antolatzen dute, euskara zerbitzuen bitartez, Nafarroako Gobernuaren eta Pamiela argitaletxearen laguntzarekin. Leire Salaberriaren lana 19 lanen artean hautatu zuen Patxi Zubizarretak, Iñaki Agirrezabalek, Mikel Valverdek eta Jon Zabaletak osatutako epaimahaia.



-
- **Gala:** egun euritsuez gozatzeko arrazoiak, neskato baten ikuspuntutik.
 - **Adin egokia:** 7 urtetik aurrera.
 - **Nabarmenezko moduko datuak:** Euskarazko Album Irudidunak egiteko V Etxepare Saria; kontakizun poetikoa, kontraste kromatikoak; euriaren abantaila eta desabantailak; eguraldiari loturiko aldarte eta umoreak.
-

Leire Salaberria

(Andoain, 1983)

Arte Ederretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Haur eta gazteentzako irudigintzari buruzko graduondoko ikastaro batekin eta diseinu grafikoari buruzko beste batekin osatu zuen bere prestakuntza Bartzelonan. Gaur egun irudigintzan egiten du lan. Hainbat lehiaketa eta bekatan hautatu dute Leireren lana.

